

Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan

Los paradigmas del consenso y del conflicto
en la sociolingüística vasca

Les paradigmes du consensus et du conflit
dans la sociolinguistique basque

The paradigms of consensus and conflict
in the Basque sociolinguistic

JUARISTI, Patxi
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2019-01-02
Noiz onartua: 2019-03-29

Euskera. 2018, 2, 1. 299-322. Bilbo
ISSN 0210-1564

Zein da gizarte-ordena azaltzeko paradigmarik egokiena? adostasunarena edo gatazkarena? Eztabaida hau hizkuntzen arteko ukipena aztertzerakoan ere agertzen da: soziolinguista batzuk diote hizkuntzen arteko harremanak adostasunean oinarritzen direla; beste batzuentzat, aldiz, gatazka dago ukipenean dauden hizkuntzen arteko harremanen oinarrian. Artikulu honetan, bi ikuspuntu teoriko hauen berezitasunak eta euskal soziolinguistikan izan duten eragina azertzen ditugu, baita bi paradigma hauek sortu dituzten diskurtsoak ere.

Hitz gakoak: Euskara, gutxitutako hizkuntzak, adostasunaren paradigma, gatazkaren paradigma, hizkuntza-gatazka, hizkuntza ukipena, hizkuntza-ekologia, eleaniztasuna.

¿Cual es el mejor paradigma para explicar el orden social? ¿El del consenso o el del conflicto? Este debate ha estado presente también a la hora de estudiar el contacto entre lenguas: unos sociolingüistas dicen que las relaciones entre las lenguas han de basarse en el consenso; para otros, en cambio, el conflicto siempre subyace entre dichas lenguas.

En este artículo estudiamos las características de las dos visiones teóricas, los discursos que han generado y la influencia que han tenido en la sociolingüística vasca.

Palabras clave: Euskera, lenguas minorizadas, paradigma del consenso, paradigma del conflicto, conflicto lingüístico, contacto entre lenguas, ecología lingüística, plurilingüismo.

Quel est le meilleur paradigme pour expliquer l'ordre social ? Celui du consensus ou celui du conflit ? Ce débat existait également lorsqu'il s'est agi d'étudier le contact entre les langues : des sociolinguistes disent que les relations entre les langues doivent être basées sur le consensus ; pour d'autres au contraire le conflit entre ces langues est toujours sous-jacent.

Nous étudions dans cet article les caractéristiques de ces deux visions théoriques, les raisonnements engendrés et leur influence dans la sociolinguistique basque.

Mots-clés : Langue basque, langues minorisées, paradigme du consensus, paradigme du conflit, conflit linguistique, contact entre langues, écologie linguistique, plurilinguisme.

Which is the better paradigm to explain the social order? ¿The consensus or the conflict? This discussion is frequent when we study the relations between two or more languages. Some sociolinguistics think the relation must be based on the consensus, but in others' opinion, on the contrary, it should be based on the conflict.

In this article we study both paradigms, the discourses that have emerged from them, and the influence they have been in the Basque Sociolinguistic studies.

Keywords: Basque language, minority languages, The paradigm of consensus, The Paradigm of conflict, Linguistic conflict, Language contact, linguistic ecology, multilingualism.

Gizarte-ordena azaltzeko, ulertzeko edo ikertzeko bi paradigma nagusi daude Gizarte Zientzietan: adostasunarena eta gatazkarena.

Bi korronte, ildo teoriko edo ikuspuntu epistemologiko hauek hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko ukipena aztertzerakoan ere agertzen dira. Hau da, soziolinguista batzuk hizkuntza-komunitateen arteko harremanak adostasunean oinarritzen direla (edo oinarritu beharko lirakeela) azpimarratzen duten bitartean, beste batzuk diote gatazka dagoela hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko harremanen oinarrian.

Artikulu honetan, bi paradigma teoriko hauen berezitasunak eta euskal soziolinguistikan izan duten eragina eta sortu dituzten diskurtsoak aztertzen ditugu.

Hasieratik esan nahi dugu adostasunaren eta gatazkaren teoriak zentzu weberiarreko tipo ideal gisa aurkezten ditugula; hots, eraikuntza artifizialak direla, gure errealitate soziolinguistikoa hobeto ezagutzeko helburuarekin sortuak. Weberri jarraituz:

Un tipo ideal (...) se obtiene (...) mediante el realce unilateral de uno o varios puntos de vista y la reunión de una multitud de fenómenos singulares, difusos y discretos, que se presentan en mayor medida en unas partes que en otras o que aparecen de manera esporádica, fenómenos que encajan en aquellos puntos de vista, escogidos unilateralmente, en un cuadro conceptual en sí unitario. Este, en su pureza conceptual, es inhallable empíricamente en la realidad: es una utopía que plantea a la labor historiográfica la tarea de comprobar en qué medida la realidad se acerca o se aleja de ese cuadro ideal (...). (Weber, 1982: 79-80)

Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak artifizialak direla onartzeaz gain, badakigu ez direla monolitikoak eta euren baitan ñabardurak daudela; baina iruditzen zaigu hizkuntza ukipenaren inguruan dauden iritzi desberdinak bi tipo idealetan sailkatuta aurkezteak lagundu dezakeela euskal soziolinguistikaren izaera eta norabidea hobeto ulertzen; baita etorkizuneko euskal soziolinguistikaren bidea zehazten ere. Izan ere, tipo idealek ikerketarako hizkuntza bat bera erabiltzeko gaitasuna ematen digute, ikerketa enpirikoak burutzeko erraztasunak eskaintzen dizkigute eta hipotesiak egiten laguntzen digute. Fernando Sanchez de Puertak dioen bezala:

(...) un tipo ideal o un conjunto de ellos sirven, en primer lugar, para llegar a un lenguaje común a la hora de hablar o escribir sobre un concepto sociológico. En segundo lugar, los tipos ideales nos permiten compararlos con realidades empíricas para obtener conclusiones. Por último, los tipos ideales son útiles para la formulación de hipótesis. (Sanchez de Puerta, 2006: 15)

1. Adostasunaren teoriak

Adostasunaren teorien artean daude, besteak beste, funtzionalismoa, es-
truktural-funtzionalismoa, sistemen teoria edo hizkuntza-ekologia. Euren
artean desberdintasun adierazgarriak daudela ahantzi gabe, iruditzen zaigu
teoria hauek guztiek gauza bat dutela komunean: gizarte-ordena azaltzera-
koan adostasunean oinarritzen direla.

1.1. Adostasunaren teorien gizarteari buruzko ikuspuntua

Adostasunaren aldeko teorietariko askok ikuspuntu organizista dute gi-
zartea aztertzerakoan; beste batzuk biologiari abiatzen dira gizarte egituren
izaera ikertzerakoan; eta badaude sistemetan oinarritzen direnak ere.

Edozein delarik abiapuntua, adostasunaren teorikoentzat, gizarteak atal,
organo edo azpisistemez osaturik daude, eta zati hauek guztiek elkarrekin lan
egiten dute gizartearen elkartasuna, egonkortasuna, harmonia eta oreka lor-
tzeko. Zehatzago esanda, gizarte batek funtzionatu dezan, sistema osoak zein
bera osatzen duten zatiek honako funtzio hauek bete behar dituzte: helburu
komunak lortzera bideratu behar dira (funtzio politikoa), ingurunera egokitu
behar dira (funtzio ekonomikoa), partekatutako balioak behar dituzte (fun-
tzio kulturala) eta sistemako zatien elkarrekintza egokia ziurtatu behar dute
(funtzio integratzailea)¹. Sistemak eta euren azpisistemek funtzio hauek modu

¹ Teoria honen oinarrian Talcott Parsons soziologo iparramerikarrak 50eko hamarkadan propo-
satu zuen AGIL paradigma dago. AGIL paradigma Parsons-en ekintzaren teoriaren parte da, eta
El Sistema Social (1984) liburuan agertu zuen.

egokian betetzen badituzte, ez dute zertan desorekak, interes desberdinen arteko gatazkak edo eztabaida ideologiko-politiko bortitzak agertu behar. Are gehiago, gizarteek funtzioak ondo betetzen badituzte (helburu komunak lortzera bideratzen badira, ingurunearekiko egokitzen badira, integratuta lan egiten badute eta balio komunak badituzte) herritarrek arazorik gabe onartzen eta barneratzen dituzte gizarteko erakundeek sortzen dituzten balioak eta arauak, eta, beraz, zigorrak ez dira beharrezkoak.

1.2. Adostasunaren teoriaren hizkuntza ukipenari buruzko ikuspuntua

Hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko harremanak adostasunaren teoriaren arabera ikertzen dituztenak ikuspuntu organizista, biologizista edo sistemikoetatik abiatzen dira nagusiki; eta erabiltzen dituzten kontzeptuak ere diziplina hauetatik hartuak dira (ekologia, funtzioak, biziberritzea, ekosistema, integrazioa, aniztasuna, autorregulazioa, jasangarritasuna, arnas gunea, bizi-baldintzak, espazioa...).

Hauen ustez, gizarte batean hitz egiten den hizkuntza bakoitzak (azpistema bakoitzak) bere funtzioa eta tokia (txoko ekologikoa) lortu behar ditu ekosistemaren², eta guztiek, txiki zein handiek, elkarrekin, eta modu integratu, jasangarri eta erregulatuan lan egin behar dute. Hau da, hizkuntza guztiek inguruan dituzten beste hizkuntzekiko zein bizi diren testuinguruarekiko egokitu behar dute, hizkuntza guztien arteko elkarbizitza lortzeko. Azurmendik zioen bezala: «Hizkuntza-ekologiak hizkuntzen arteko harremanak modu berrian ulertzen ditu. Harreman horiek, ezinbestean, gatazka-tsua eta baztertzailak izan behar dutelako ideia gaudituz, honako ideiak azpimarratzen ditu: 'Hizkuntza gutxituaren sustapena ez litzateke beste hizkuntz(ar)en kaltetan egin behar. Hizkuntzen arteko bizikidetzak, hizkuntzen arteko elkarbizitza litzateke helburua' (Coyos 2009); mundu osoan zabaldu-tako estatu-nazioaren hizkuntza bakarreko ereduak gaudituz nahi du hizkuntza ekologiak; ...hizkuntza-desberdintasunaren mantentzeaz arduratzen da,

² David Crystalek zioen bezala: «Helburua da esparru batean parte hartzen duten hizkuntza guztiak gogo berdintasunez tratatzea, hierarkiarik gabe, elkarren kontra jarri gabe. Hala izango bada, hizkuntza bakoitzak bere ingurua behar du, bere bizi-esparrua...» (Crystal, 2009: 12).

hizkuntza guztiek, 'txiki'ek barne, gizadi osoari aberastasuna ematen diotela argudiatuz' (Coyos 2009). Planteamendu etiko berri horrekin ikuspuntu zientifiko berria eraikitzen saiatzen da hizkuntza-ekologia» (Azurmendi, 2010b: 146).

Honenbestez, elkarbizitzaren alde egiten duten hizkuntzek eta hizkuntza-komunitateek oreka, harmonia, egonkortasuna edo kohesioa lortzen dute. Aldiz, inguruan dituzten beste hizkuntzekiko zein bizi diren testuinguruarekiko egokitzen ez direnek desagertzeko arriskua dute.

Zentzu horretan, hizkuntzen arteko harremanetan desorekak edo gatazkak agertzen direnean, eta hizkuntza bat desagertu aurretik, ingurunean eragin beharra dago. Hain zuzen ere, faktore demografiko, kultural, ekonomiko edo soziopolitikoek hizkuntzarengan duten eragina aztertu beharra dago, ostean, hizkuntza politiken bidez, hauengan eragiteko, eta, berriro ere, hizkuntza bere ingurunera egokitzeko.

Era berean, hizkuntza bat ekosistemako beste hizkuntzekin behar bezala integratzeko, ezinbestekoa da hizkuntzei loturiko balio etikoak sozializatzea: aniztasunaren balioa, hizkuntza guztiak (txiki zein handiak) babestearen garrantzia, hizkuntza guztiekiko errespetua-tolerantzia, hizkuntza guztiak berdinak direnaren ideia... Era horretako balioak hedatuz, gizakiek inolako zigor edo presiorik gabe onartzen dute hizkuntzen arteko elkarbizitza harmoniatua, eta harremanetan dauden hizkuntza-komunitateek eta gizarteek oreka lortzen dute. Belen Urangak zioen bezala:

Garrantzia du hizkuntzak hierarkizatzeke arrazoirik ez dagoela azaltzea, eta hizkuntza guztien eta kultura guztien berdintasuna aldarrikatzea ezinbesteko lana dela. Hizkuntza-iraunkortasunak giza espeziearen hizkuntza-antolakuntzaren aldaketa ekarri behar du, helburu nagusi batekin: elebitasuna edo eleaniztasunaren hedatzeak ez duela taldearen hizkuntza baztertu beharrik. (Urangea, 2011: 41)

1.3. Adostasunaren teorien alde positiboa hizkuntza ukipena aztertzerakoan

Hizkuntza-komunitateek era askotako mekanismoak sortzen dituzte inguruko komunitateekin kooperazioa harremanak bultzatzeko (balio eta helburu

komunen aldeko ekimenak, kooperazioa bultzatzen duten jarduerak, kohesio sortzaile diren erakundeak, hizkuntza-politikak...); eta adostasunaren teoriak oso egokiak dira mekanismo hauek aztertzeke eta balioan jartzeko.

Bigarrenik, hizkuntza-komunitateen arteko adostasunari garrantzia ematen diotenenek sortzen dituzten diskurtsoak edo aldarrikatzen dituzten helburuak (hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetzak, hizkuntza aniztasunaren balioa, hizkuntza guztiekiko errespetua-tolerantzia edo hizkuntza guztien berdintasuna bezalako mezuak) oso erakargarriak dira hizkuntza guztiak babestearen aldeko mezuak sortzerakoan.

Hirugarrenik, aipagarria da adostasunaren teoriak hizkuntzak eta hizkuntza-komunitateak euren testuinguruan aztertzearen alde agertzen direla. Hau da, hizkuntza bakoitzaren errealitatea ezagutzeko, testuinguru osoa (politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen dute. Eta ikuspuntu holistiko hau oso egokia da errealitate soziolinguistikoen alde guztiak ezagutzeko; hau da, errealitate soziolinguistikoak bere osotasunean ezagutzeko. Inazio Markok eta Belen Urangak dioten bezala:

El entorno de la lengua, por tanto, serán las circunstancias y conjunto de fuerzas que están fuera de la propia lengua y que condicionan su uso. En este sentido, la ecología lingüística estudiará los fenómenos relacionados con la lengua con la intención de explicar cómo la combinación de fuerzas demográficas, culturales y económicas moldean el entorno de una lengua e influyen en el desarrollo y distribución de funciones de la lengua en dicho entorno. (Marko eta Urange, 2014: 76)

Azkenik, kontuan hartzekoa da adostasunaren teoriak helburu heuristikoekin erabiltzen direla, eta oso baliagarriak direla fenomeno soziolinguistiko konplexuak ulertzeko behar diren teorizazioak egiteko. Bastardasek dioten bezala:

Si pensamos que las lenguas son como 'especies' culturales, que viven en ecosistemas que influyen de manera determinante en sus evoluciones, podemos encontrar aquí una línea de trabajo interesante. Aun siendo conscientes de las distintas propiedades de las enti-

dades biológicas y las lingüísticas, esta estrategia ha sido utilizada por algunos autores con fines heurísticos y de ayuda para avanzar en la teorización de los complejos fenómenos sociolingüísticos que se quieren comprender. (Bastardas, 2016: 455)

1.4. Adostasunaren teoriaren alde negatiboa hizkuntza ukipena aztertzerakoan

Adostasunean oinarritzen diren teoriari egiten zaien lehen kritika da ez dituztela behar bezala aztertzen hizkuntza-komunitateen artean sortzen diren gatazkak, ezta gatazka horien sortzaile diren faktore eta mekanismoak ere: borroka ideologiko-politikoak, interesen arteko lehiak, botere maila desberdinen artean sortzen diren mendekotasun harremanak, hizkuntzen inguruan dauden kontrabaloak... Eta horren ondorio nagusia da hizkuntzaren egoeraren erantzuleei buruz modu abstraktuan hitz egiten dela (helburu eta balio komunak gabeziari, autoerregulazio arazoei, integrazio gabeziari, ingurunearekiko egokitze txarrei edo balio komunak gabeziari buruz hitz egiten da modu abstraktuan), eta, horrela jokatu, hizkuntzen heriotzaren benetako erantzuleak ezkutatu egiten direla eta, garrantzitsuena dena, konpromisorik gabeko diskurtsoa sortu daitekeela. Inazio Markok eta Belen Urangak dioten bezala:

La ecología lingüística puede aportar características enriquecedoras para la reflexión, tanto desde la vía del valor ético mencionado anteriormente, como desde la vía de conformar una base teórica de referencia consiste. Pero, como subraya un participante, al igual que en otras ecologías, también en ésta se corre el riesgo de quedarse en un discurso carente de compromiso, en un discurso *naif*. (Marko eta Uranga, 2014: 75)

Beste kritika bat da ahaztu egiten dutela hizkuntzen inguruan sortzen diren lehia, eztabaida, borroka eta presioek eragin positiboa izan dezaketela hizkuntzen berreskuratze prozesuetan. Hau da, ez dute kontuan hartzen gatazkek hizkuntza-komunitateen arteko elkarriketak edo negoziazio prozesuak abiarazi ditzaketela, eta hori baikorra izan daitekeela egoera ahulean dauden hizkuntzentzako.

Adostasunean oinarritzen diren teoria soziolinguistikoek diskurtso erakar-
garriak sortzen dituzte, baina munduan bizi den errealitate ekonomiko, poli-
tiko eta sozialak zerikusi gehiago dauka gatazkekin eta interesen lehiarekin
adostasunarekin baino. Ondorioz, errealitatearekin zerikusirik ez duten dis-
kurtsoak sortzen dituztela aurpegiratzen zaie. Are gehiago, lehendik eleaniz-
tasunaren garrantziaz konbentzituta daudenak konbentzitzeko diskurtsoak
dira, balio hauetan sinesten ez dutenengan eragiteko gaitasun gutxi dutenak.
Inazio Markok eta Belen Urangak dioten bezala

Es difícil tener un discurso negativo en torno a la sostenibilidad,
y pocos lo rebatirían, al menos conscientemente; pero pasar de la
ecología en abstracto a la ecología lingüística supone sumergirse en
una realidad conflictiva, y en esa realidad, se ve difícil convencer a
aquellos/as que se sitúan en el plano del idioma dominante (...).
(Marko eta Uranga, 2014: 75)

Xabier Erizek ere hizkuntza-ekologiaren ahultasun hauek aipatzen ditu:

(1) balioen mailako kontzeptu moral bat izanik, berez ez da aski
ikerikuntzan edo hizkuntza kudeaketan gehiago garatzeko, eta beste
diziplina batzuen laguntza behar du; (2) balio horietan sinesten du-
tenak oso inplikaturik gelditzen diren bezala, garrantzi gutxi ematen
dietenak kanpo gelditu daitezke; eta (3) biologiaren eta gizarte zien-
tzien arteko paralelismoa irristakorra suertatzen da. (Erize, 2011: 67)

Hizkuntza guztien berdintasuna, osagarritasuna, funtzionalitatea edo el-
karrekintza azpimarratzen da. Hizkuntza guztiak dira baliotsuak eta guztiak
babestu behar dira (baita hiztun gutxi dituzten etorkinen hizkuntzak ere).
Batzuen ustez, era horretako ikuspegiak aiantzi egiten dute hizkuntza guz-
tiak hezkuntza sisteman, komunikabideetan edo administrazioarekiko ha-
rremanetan xertatzeko era askotako mugak daudela (bereziki muga ekono-
mikoak). Beste berba batzuekin esanda, teoriatik praktikara salto egiteko
arazoak dituen teoria da. David Crystalek dioen bezala: «Aniztasun linguis-
tikoaren politikaren printzipioak ondo ulertzen ditugu teorian, baina zailak
dira gauzatzen horren aldaketa arinak izaten ari direlarik immigrazioan,
ekonomiaren etorkizuneko bilakabideetan eta komunikazio-teknologietan»
(Crystal, 2009: 12, itzulpena gurea da).

Beste kritika bat zera da: ez dutela bilakaera historikoa kontuan hartzen. Hizkuntza-komunitateen momentuko egoera aztertzen dute, hizkuntza-komunitate horren historia eta bilakaera kontuan hartu gabe.

Harmonia, integrazioa, oreka edo egonkortasuna azpimarratuz, aldaketak eta iraultzak desagokizat hartzen dira. Beraz, hizkuntzen berreskuratzea ere modu gradualean, apur-apurka, egin behar dela diote, eta bizkorregi egin nahi izatea kaltegarritzat eta utopikotzat hartzen da.

Adostasunari garrantzia emanez eta gatazka arbuiatuz, diskurtso morali-tzailea sortzen dute; hau da, inplizituki zera aldarrikatzen da: adostasuna posible dela zalantzan jartzen dutenak edo gatazkari garrantzia ematen diotenak moralik gabekoak dira.

Esandako guztiaren ondorioz, askoren ustez, era honetako teoriak estatikoak (gauzak dauden bezala uztearen aldekoak) eta gizarte aldaketak ikertzeko gaitasunik gabeak dira. Batzuk urrunago doaz, eta teoria kontserbadoreak direla diote. Hain zuzen ere, adostasunaren teoriei egin zaien kritiketariko bat da klase ertainen gizarte egitura idealak islatzen dituztela.

1.5. Adostasunaren teoriak euskal soziolinguistikan

Euskal soziolinguistikaren baitan hizkuntza ukipena aztertzen duten lan gehienek, gehiago edo gutxiago, bi paradigmatak edaten dute, gure ustez. Edozelan ere, egiten diren gogoeta eta ikerketetan beti sumatzen da paradigma baterako edo besterako joera handiagoa. Gure ustez, adostasunaren paradigmaren eragina duten lanetan era honetako ideiak, diskurtsoak eta ondorioak agertzen dira:

1. Orain bezala, etorkizunean ere Euskal Herria eleaniztuna izango da eta eleaniztasuna aberasgarria da.
2. Eleaniztasunaren izenean, euskara, frantsesa eta gaztelania, hirurak dira Euskal Herriko hizkuntzak, eta hirurak babestu eta bultzatu behar dira. Era berean, ezin da ahantzi etorkinen hizkuntzak ere hitz egiten direla Euskal Herrian, eta hauei ere lekua egin beharko litzaiekeela.

3. Euskaldunen eta erdaldunen arteko elkarbizitza, harmonia edo oreka ziurtatu behar dira; hau da, ekosistema osatzen duten hizkuntza-komunitateen arteko kohesioa.
4. Horretarako, elkarbizitza linguistikoa ahalbidetuko duten balio etikoak hedatu behar dira (hizkuntza aniztasunaren balioa, hizkuntza guztiekiko errespetua-tolerantzia...), batez ere bigarren mailako sozializazioa ahalbidetzen duten erakundeen bidez (bereziki eskolaren eta komunikabideen laguntzarekin). Horrez gain, erdaldunak euskarara erakartzeko diskurtso berriak sortu behar dira, baita erdaldunak eta euskaldunak elkar ezagutzeko ekimenak ere.
5. Zenbait esparru eta funtziotan euskara izango da hizkuntzarik erabiliena, eta beste funtzio eta esparru batzuetan euskarak ez du lortuko gaztelaniak edo frantsesak duen hedapenik.
6. Euskara ez da soilik abertzaleen kontua, guztiona baizik. Beraz, euskara berreskuratzeko ezinbestekoa da hizkuntzaren auzia eztabaida ideologiko-politikoetatik ateratzea.
7. Euskararen berreskuratzea modu gradualean, apur-apurka, egin behar da, ez modu iraultzailean.
8. Adostasunean oinarrituta lortu behar da euskararen berreskurapena. Zigorak eta gehiegizko presioak ez dira egokiak euskararen biziberri-tzeari oinarri sendoa emateko.
9. Ikerketa enpirikoari dagokionez, balioen ikerketek eta kohesioa ahalbidetzen duten bigarren mailako sozializazio eragile, mekanismo eta erakundeek (bereziki eskolak) garrantzi handia hartzen dute.

2. Gatazkaren teoriak

Gatazkaren teoriaren baitan ere, era askotako teoriak daude (joko-teoriak, negoziazio-teoriak edo erabakiaren teoriak, adibidez). Hauen artean desberdintasun garrantzitsuak daudela aiantzi gabe, iruditzen zaigu teoria hauek guztiek gauza bat dutela komunean: gizarte-ordena azaltzerakoan gatazkan oinarritzen direla. Komunean dute, baita ere, adostasuna azpimarratzen zu-

ten teoria estruktural-funtzionalisten aurka sortu zirela 50eko eta 60ko hamarkadetatik aurrera.

2.1. Gizarteari buruzko ikuspuntua gatazkaren teorian

Adostasunaren teorien artean bezala, gatazkaren teorien baitan ere ikuspuntu desberdinak daude. Batzuentzat, gatazkak sortzen dira gizartean interes desberdinak daudenean; beste batzuentzat, aldiz, gatazkak urriak diren eta balioa duten gauzen (estatusa, balioak, boterea, lehengaiak...) inguruan sortzen dira (Coser, 1970); beste batzuk bateraezinak diren helburuen ondorio direla diote.

Edozein delarik gatazken jatorria, paradigma honetan kokatzen diren zentzat gizarteetan berezkoak dira desadostasunak edo eztabaida ideologiko-politikoak. Bizitza gatazka hutsa da. Are gehiago, gatazkak aldaketa sozialaren motorra izan daitezke; berrikuntzarako eta garapenerako energia (Dahrendorf, 1966: 205). Beraz, gatazkak beldurra eman behar die bakarrik oso gutxi integratuta dauden gizarteei (Coser, 1970: 40). Kohesionatutako gizarteetan gatazkek ez dute beldurrik sortu behar, gizartearen funtzionamendu normalaren parte direlako.

Edozelan ere, ezinbestekoa da gatazkak kontrolatzeko mekanismoak sortzea. Hau da, gizartearen integrazioa ziurtatzeko beharrezkoa da jendea derrihortzea eta zigorrak ezartzea.

2.2. Hizkuntza ukipenari buruzko ikuspuntua gatazkaren teorian

Gizarte batean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudenean, hauen arteko desoreka, gatazka edo lehia sortzen da, hizkuntza bakoitzak funtzio eta erabilera-eremu berriak eskuratu nahi izaten dituelako edo lehendik dituenak babestu eta hedatu. Beste berba batzuekin esanda, gatazkarik gabeko gizarte elebitasuna lortzea ezinezkoa da, gehienetan hizkuntzek funtzio, eremu edo botere maila desberdinak izaten dituztelako eta, ondorioz, hizkuntza-komunitateen artean mendekotasun harremanak izaten direlako. Paulo Iztuetak zioen bezala:

Gure tesia da, gizarteko harremanak, izan, gatazkatsuak direla, eta hala direla, gizarteko harremanetan interes kontrajarriak aurkitzen direlako eta, modu batera edo bestera jokatzeko orduan, talde desberdinen motibazioak desberdinak izaten direlako. Boterea zeinek izan, hark kontrolatzen ditu gizarte-harreman horiek. Boterea duenak bere legea inposatzen du beste guztien gainetik, hari kontra egin ala ez. Botereak obediencia eskatzen du. Horregatik, hizkuntza – euskara– guztioi dagokigun zerbait dela eta, ezin dela politizatu esaten denean, behin eta berriz esan ere, zerbait irrealia predikatzen ari gara. Hizkuntza-politikaz mintzatzen garenean, intelektualen etikan ez da aizu soineko literarioz edo poetikoz jantzitako edozein diskurtso egitea, akademikoa baizik, kasu honetan Soziolinguistika edo Hizkuntza Soziologiako iturrietan oinarritzen dena. (Iztueta, 2003: 47)

Edozelan ere, hizkuntza-komunitateen arteko gatazkek alde positiboa ere izan dezakete, ondo bideratzen badira. Elkarrekin hitz egitera bultzatu dezakete, eta hori kohesio sortzaile izan daiteke. Beraz, garrantzitsua da hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko botere harremanetan eragina duten mekanismo, eragile eta erakundeak aztertzea (gizarte mugimenduak, alderdi politikoak, erakunde publikoak, botere ekonomikoak, presio taldeak...), kohesio sortzaile nola bihurtu daitezkeen jakiteko. Are gehiago, hizkuntzak eta hizkuntza-komunitateak mendekotasun egoeran daudenean, hil edo biziko egoeran, botere harremanetan eragin beharra dago. Zigorren, presioen edo beste bide batzuen bidez indarren korrelazioa aldatu edo orekatu gabe, ezin da menderatuta dagoen hizkuntzaren egoera hobea gotu.

2.3. Gatazkaren teoriaren alde positiboa hizkuntza ukipena aztertzerakoan

Gatazkan oinarritzen diren teoriak gai dira hizkuntza-komunitateen baitan sortzen diren aldaketak ikertzeko, baita gatazka eta aldaketa hauen sortzaile diren faktore eta mekanismoak ere: borroka ideologiko-politikoak, interesen arteko lehiak, boterearen banaketa desorekatuak, mendekotasun harremanak...

Horrekin batera, gai dira hizkuntzen inguruan sortzen diren eztabaida, borroka, presio eta lehiak hizkuntzen berreskuratze prozesuetan izan dezaketzen eragin positiboa ulertzeko eta aztertzeko.

Era berean, oso kontuan hartzen dute hizkuntza-komunitateen bilakaera historikoa. Beraz, historian zehar hizkuntzengan eta hizkuntza-komunitateengan aldaketak eragin dituzten faktore eta eragileak ikertzeko eta hauen ondorioak zehazteko gaitasun handia dute.

Gutxitutako hizkuntzaren egoera ahula boterearen banaketa desorekatuaren eta mendekotasun harremanen ondorio direnez, hizkuntzen arazoan erantzule ekonomiko, politiko, kultural eta sozialei buruz inolako abstrakzioarik gabe hitz egiten dute.

2.4. Gatazkaren teorien alde negatiboa hizkuntza ukipena aztertzerakoan

Gatazkaren teorikoen diskurtsoa ez da erakargarria. Hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko harremanen alde bortitzena erakusten dutenez, askotan mezu desatsegina sortzen dute. Eta mezu horrekin zailagoa izan daiteke hizkuntza aniztasunaren edo gutxitutako hizkuntzen aurka daudenak erakartzea.

Gatazkak funtzionalak izan daitezke joera deuseztatzaileak edo desintegratzaileak kontrolatzen badira, baina kontrolagaitzak direnean oso kaltegarriak izan daitezke. Hots, kontrolik gabeko gatazkek hizkuntza-komunitateen arteko harremanak epe luzerako zapuztu ditzakete, eta hizkuntzen berreskuratze prozesuak oztopatu. Are gehiago, gatazkek eta interesen arteko lehiak ez dute beti elkarriketa bultzatzen.

Gatazkaren teorikoei egiten zaien beste kritika bat da, gatazka, lehia eta desberdintasunak azpimarratuz, ez dituztela behar bezala kontuan hartzen hizkuntza-komunitateen artean sortzen diren kooperazio harremanak, ezta kooperazio hauen sortzaile diren faktore eta mekanismoak ere: desberdinen arteko hitzarmenak, partekatutako balioak, elkarbizitza eta kooperazioa ahalbidetzen duten mekanismoak... Hau da, ahantzi egiten dute gatazka eta kooperazioa bata bestearen alboan bizi direla eta, sarri askotan, alternatu egiten direla.

Gatazkari garrantzia emanez eta adostasuna arbuiauz, diskurtso bazter-tzailea sortzen dute; izan ere, gatazkak duen indarra ulertzen ez dutenak txepeltzat, konformistatzat edo erreformistatzat (iraultzaren aurkakotzat) hartzen dira.

Gutxitutako hizkuntzen kasuan, biziberritzea bizkorregi egin nahi dutela aurpegiatzen zaie, eta, ondorioz, era honetako teoriak utopikoegiak direla esaten da.

2.5. Gatazkaren teoriak euskal soziolinguistikan

Arestian esan bezala, euskal soziolinguistikaren baitan hizkuntza ukipena aztertzen duten lan gehienek bi paradigmata edaten dute. Era batera edo bestera, bi korronte teorikoen eragina dute. Edozelan ere, gatazkaren paradigmaren eragin handiagoa duten ikerketetan era honetako ideiak eta ondorioak agertzen dira:

1. Euskara bertoko hizkuntza bakarra da, eta euskal izaeraren ardatza; aldiz, gaztelania zein frantsesa hizkuntza arrotz, menderatzaile eta inposatuak dira.
2. Euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusia edo hegemonikoa izango da, edo desagertu egingo da.
3. Hizkuntza-gatazkak eta hizkuntzen inguruko eztabaida ideologiko-politikoak etorkizunean ere jarraituko dute, hizkuntza-komunitateen artean interes kontrajarriak, mendekotasun harremanak eta boterearen banaketa desorekatua daudelako.
4. Mendekotasun harremanak gainditu gabe edo botere harremanak orekatu gabe erdaldunen eta euskaldunen arteko gatazkek ez dute amaierarik izango.
5. Adostasuna lortzea zaila denez, euskara berreskuratzeko ezinbestekoak dira presioak eta zigorrak.
6. Hizkuntzaren auzia Euskal Herrian auzi politikoa da. Beraz, euskararen gaia gatazka ideologiko-politikotik aterata, euskararen aldeko borroka umezurtz eta indarrik gabe gelditzeko arriskua dago. Are gehiago, abertzaletasunak erdaldunen artean sortu dituen kontraesanek eta, oro har, euskal identitatearen inguruko eztabaida, borroka,

presio, gogoeta eta kontzientzia hartzeek berebiziko garrantzia izan dute euskararen berreskuratzean.

7. Euskararen berreskuratzea astiroegi doa. Normalizazioa azkartu beharra dago.
8. Ikerketa enpirikoari dagokionez, gizarte aldaketek eta hauek sortzen dituzten eragile, mekanismo eta botere harremani loturiko ikerketek garrantzi handia hartzen dute.

3. Azken gogoeta

Paulo Iztuetaren arabera, Aitzolena da gatazkaren teorian oinarritutako euskal soziolinguistikaren lehenengotariko lana:

Ikusi dugu Aitzolek oso gutxi idatzi zuela euskaraz eta, egia esan, idatzi zuen apurra ere nahikoa modu traketsean. Hala ere, aitortu behar da gaurko Soziolinguistikak hari zor dizkiola hizkuntz gatazkari buruzko lehen gogoetak, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* (1935) saiakeran landu zituenak eta II. tomoan bilduta daudenak, eta jakin zuela garai hartan European indarrean zeuden hizkuntza teoriak euskal kasura ekartzen; honela, Joxe Manuel Odriozolak ondo zehazten duen bezala, hurbil-hurbiletik arakatu zituen hizkuntza baten ordezkapen-prozesuan Estatuak duen eragin asimilatzailea eta, alternatiba gisa, gizarte-statusaren plangintzan elebitasunak izan zezakeen eginkizuna; zentzu honetan, esan dezakegu, Iñaki Larrañagarekin batera, arlo honetan aitzindari izan zela. (Iztueta, 1993: 133-134)

Frankismoaren ostean, Jose Maria Sanchez Carrion «Txepetx»ek *El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* liburua argitaratu zuen 1972. urtean. Iñaki Larrañagak zera zioen lan honi buruz (1987: 9):

Lan horretan agertzen dira gure artean, lehen aldiz, hizkuntzen arteko ukipenak sortarazten dituen arazoak. Hizkuntzen arteko ukipena, alegia, ez dela inoiz ere baketsu eta gozoa, eztabaidaz eta konfliktoz betea baizik; jokoan sartzen diren hizkuntzak bakoitzak

beretzako errebindikatzen dituelako hizkuntza erabiltzeko guneak eta funtzioak.

1974an, Txepetxek berak, «Bilingüismo, diglosía (sic), Contacto de lenguas. Hacia una delimitación de conceptos» artikulua idatzi zuen. Artikulu horretan ere hizkuntza ukipenaren izaera gatazkatsua aipatzen zuen:

Por eso creo que, para empezar, reconocer entre nosotros una cierta forma de ‘conflicto lingüístico’ es ya, un primer paso, muy importante, para saber tomar partido dentro del mismo. O si se quiere, para estar en condiciones de participar en las decisiones que afectan a algo tan sutil, tan complejo y tan nuestro como es la lengua que hablamos. (Sanchez Carrion, 1974: 5)

Mikel Zalbideren hitzetan, artikulua honetan Txepetxek ukipen egoeran dauden hizkuntzen artean gatazka ezinbestekoa delako ideia zurkaiztu zuen:

Hiru ondorio kaltegarri utzi ditu saio hark, nire ustez: a) *elebitasun* kontzeptuarekiko mesfidantza-giroa, errezelozko jarrera, ahuldu ordez indartu egin zuen; b) ukipen-egoerako hizkuntzen arteko *konfliktu-borrokaren* ezinbestekotasun-ikuspegia zurkaiztu zuen, eta c) diglosia hitzaren distortsioa areagotu egin zuen, jatorrizko adiera-muinetik nabarmen aldenduz. (Zalbide, 2010: 33)

1978an Euskaltzaindiak *Euskararen liburu* zuria argitaratu zuen. Liburu horretan ere, hizkuntzen arteko gatazkei buruz hitz egiten zen:

Hizkuntza gizarteko elkar komunikabide sistema mirezgarri bat da. Arazoa, ordea, honetan datza: munduan komunikaziorako hizkuntza diferenteak 2.500dik gora sailkatu direla, eta hizkuntz diferentzia horiek, sarritan, gatazka bide gertatzen direla, batzuk berena besterenaren gain ezarri nahi izatean. Euskarak zailtasun berezi bat du berekin: ahaidetik, pobreena ere, ez ukaitea; ezagunik bederen; B. Malmberg-ek 2.500 hizkuntza diferente horiekin moldatu dituen 20 familia eta taldeetan, euskarak sail horietarik bat betetzen du bakarrik. Erants diezaiozun horri, euskal hiztunak gutxi garelara. Are: instituzionalki babes lezakeen Estaturik gabe da; gaineratiko hizkuntza ofizialak, handi ala txiki, ez bezala. Gehiago oraino: zati-katurik dago Estatu biren artean, eta historian barna, zapalduarik alde

bietan, behingoz izkuta ladino. Parada horretan, aise egon zitekeen aspaldidanik hilik; ez, ordea; bizirik da. (Euskaltzaindia, 1977: 651)

1977an argitaratu zen *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian*, eta bertan ere euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanari buruz hitz egiterakoan inposizioa eta gatazka aipatzen dira:

Pero ya estas áreas han perdido hoy el sentido estático que tenían; han intervenido en los últimos tiempos dos fenómenos: 1) se ha ido generalizando el castellano en todo *el territorio euskaldun* a través de la imposición oficial, de manera que ya el euskara está en contacto casi completo y permanente con él, y, más que en forma de contacto, de «conflicto». (Euskaltzaindia, 1977: 39)

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratu zuen *La Lucha del Euskara* ikerketa ere gatazkaren paradigmak kokatzen zen:

La situación de minoría lingüística numérica se agrava con la de una condición disglósica marginal, sistemática y pertinaz, por la cual el euskera se encuentra alejado de las instancias de poder, de cultura y de educación: las leyes, los mass-media, los tribunales, los centros docentes, han marginado al euskera hasta reducirlo a una postración general que lo mantiene desestructurado, minoritario y disglósico y, en consecuencia, en franca decadencia agónica. (Eusko Jaurlaritzak, 1983: 220)

1984an, Txillardegiren *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* liburua argitaratu zen. Euskara biziberritzeko eman behar ziren pausoei buruz hitz egiterakoan zera zioen Txillardegik: «1) elebidunen kopurua azkartzea: eskola, telebista, etab. Hori bai, jakina. Baina: 2) euskaldun elebakarrak (egiazkoak edo «faktikoak») sortzea; eta, tentsioak sortuz, eta abar, dinamika azkarrago bat sortzea» (Txillardegi, 1984: 113).

80ko hamarkadaren bukaeran ere indartsu zeuden gatazkaren teoriak euskal soziolinguistikan. Horrela, 1987an, Iñaki Larrañagak zera idatzi zuen:

Hizkuntzaren atzerakada edo galtze-prozesuari dagokionez, agertzen zen, hizkuntzen arteko ukipena hizkuntzen arteko gatazka bilakatzen dela. Ez dagoela elebitasun territorial orekatu eta baketsurik.

Hizkuntza batek (indartsuenak) bestea (indarrik gabea) jan egiten duela. Horrela gertatu dela Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko zenbait lurraldetan. Txepetxen teoria, beraz, guztiz frogatua gelditzen dela. (Larrañaga, 1987: 10)

1993. urtean, Joxe Migel Odriozolak *Soziolinguistikaren atarian* liburua argitaratu zuen, eta aurretik aipatutako lanen bide bera hartu zuen: «Ez gaudela hemen kontraesan eta borroka etengabeetatik kanpora, gatazka-egoeratik at, alderantziz baino: hizkuntzen arteko ezin konpondu hau azpi-azpitik baldintzaturik dagoela estrategia menderatzaile batzuren eskutik» (Odriozola, 1993: 54).

1998. urtean, Joan Mari Torrealdai *El Libro Negro del Euskera* liburua argitaratu zuen. Bertan, XVIII. mendetik euskara baztertzea helburu izan duten debeku, lege eta idatziak agertzen zituen. Historian zehar euskararen aurkako errepresioak hartu dituen formak ulertzeko adibide ugari ematen dira (Torrealdai, 1998).

Iruditzen zaigu 70eko hamarkadatik 2000ko hamarkadaren hasierara arte Euskal Herriko hizkuntza ukipena aztertu zuten euskal soziolinguista gehienak gatazkaren teorietan oinarritu zirela. Hauen ustez, euskaldunen eta erdaldunen arteko harremanak asimilazioan, errepresioan, bazterkerian, inposizioan, mendekotasunean eta boterearen banaketa desorekatuan oinarritzen ziren nagusiki.

Edozelan ere, 90eko hamarkadaren bukaeran, Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa aztertzeko paradigma aldatzen hasi zen, eta, apurka-apurka, adostasunaren teoriak pisu gehiago hartu zuen.

Zaila da aldaketa noiz gertatu zen zehaztea, baina, gure ustez, bi lanek eragina izan zuten paradigma aldaketan: Jon Sarasuaren *Biziaren hizkuntzaz. Txepetxekin solasean* (1997) liburua eta Juan Carlos Etxegoien «Xamar»-en *Orekan: Herri eta Hizkuntzen ekologiaz* liburua (2001).

Biziaren hizkuntzaz. Txepetxekin solasean liburuan zera dio Sarasuak:

Horregatik, biziaren hizkuntzari buruz mintzo naizenean, berdintasunaren printzipiotik ulertzen dut etikan edo erlijioan maitasunaren ikuspegia deitzen dena: bizitzaren muina maitasuna dela. (...)

Ikuspegi horretatik, hizkuntzei eduki hori, mezu hori, emango bagenie, ulertuko genuke hizkuntza guztiak beharrezkoak direla. Ez dira batzuk gehiago eta besteak gutxiago. Ikuspegi dikotomikoan gabiltzalako daude mehatxatuak hizkuntzak. Iduri du, ikuspegi horretatik planeta honetan batzuk (asko) soberan daudela. Biziaren ikuspegi batetik, denok gara beharrezkoak. Beharrezko bezala sortu izan naiz, pertsona bezala, herri bezala, komunitate bezala beharrezko. (Sarasua, 1997: 69)

Handik lau urtetara, Juan Carlos Etxegoienek zera aipatzen zuen: «Planetako Bizia osatzen duen puzzlean nork bere tokia bete behar du, landareak izan, animaliak edo pertsonak, beren aniztasunean. Eta hau, gizakien kasuan, hizkuntza/herri/kultura dibertsitatea da» (Xamar, 2001: 155).

Bi lan hauen ostean hainbat izan dira, hizkuntza-ekologiatik abiatuz, adostasunean oinarritutako gogoeta soziolinguistikoak egin dituztenak.

2005. urtean, *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena* idatzi zen. Ikerketa honetan zera irakurri zitekeen:

Hizkuntza aniztasunak, kultur aniztasunak bezala, izugarri aberasten du gizateria, eta guztion artean zaindu beharko genuke. Goitik behera aldatu behar da pentsaera. Bestea benetan ulertu nahi badugu, arreta jarri beharko dugu haren hizkuntza eta kultura ulertzeko. Hori lortzeko egin beharrezko ahalegina, baina, elkarrenganako errespetuan soilik oinarritu daiteke. Bestearen kultura eta hizkuntza gurea baino gutxiago direla pentsatzen badugu, hau da, pentsaera arrazista badugu, ez dugu inoiz egingo bestea gu baino gutxiago ez dena ulertzen saiatzeko behar adinako esfortzua. (Martí et al 2005: 142, itzulpena gurea da)³

2009an, Soziolinguistika Klusterrak *Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria* izeneko bi saio antolatu zituen Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kon-

³ Ikerketa honetan nabari zen Mühlhäusler-ek 1996. urtean argitaratu zuen *Linguistic ecology. Language change and linguistic imperialism in the Pacific region* liburuaren eragina. Hain zuzen ere, Mühlhäusler lehenengotarikoa izan zen hizkuntza-ekologia metafora erabiltzen, hizkuntzen eta hiztunen arteko elkarrekintza konplexuak deskribatzeko eta azaltzeko.

gresuaren baitan (Gasteiz, 2009ko azaroaren 18-20). Ekimen hau oinarritzat hartuz, zera ondorioztatzen zuen Maria-Jose Azurmendik:

Gure ‘ukipen-egoera tradizionala’ azaltzeko erabili ohi diren faktore esplikatzaileak –euskara/espainiera– honakoak izan dira: identitateak, motibazioak, irudikapenak, jarrerak, eta horrelako prozesuak, horiekin portaerak ere lotuz. Horrela eginez lortu ditugu hainbat azalpen euskararen gaitasun-mailari eta erabilerari dagokienean, besteak beste. Baina, badirudi horrela aztertzeak alde positiboak eta negatiboak dituela, euskararen aldekoak eta kontrakoak bihurtzen direnak, hain zuzen: 1) Aldeko arazoien artean dago euskararen normalizazioan ekiteko eta bultzatzeko ikuspegi hori beharrezkoa izan dela jakitea. 2) Kontrakoen artean, aldez, dikotomikoe-giak izatea da. Izan ere, horrek euskal populazio guztia ez inplikatzeari ekarri baitu, edo kontrako inplikazioa eragitea ere, EAEn behintzat, euskararen normalizazioaren alde egin ordez, oztotatzeko. (Azurmendi, 2010b: 161)

Hizkuntza-ukipena aztertzeko adostasunaren paradigma, zehatzago esanda, hizkuntza-ekologia, hemen zein kanpoan, XXI. mendeko bigarren hamarkadan hartzen ari zen indarraren erakusle da Belen Urangak zioena (2011: 26):

Gaur egungo gizartean ikuspegi ekologikoak arrakasta ideologiko nabarmena irabazi du; merkatuak egiten duen erabilera ikusi besterik ez dago arrakasta horren neurriaz ohartzeko, baina garrantzia handiagoa du jakiteak goi mailako erantzukizunak dituztenek ere, gero eta zailagoa dutela ikuspegi ekologikoa saihestea; nolabait esateko, ikuspegi ekologikoak eragina du mundu-mailako analisi eta praxian, baina baita ere, norbanakoaren pentsamenduan eta praktiketan. Horrek ez du esan nahi, jakina, arrakasta ideologikoak praktiketan isla zuzena duenik; askok esango lukete urrun, oso urrun gaudela horretatik. Nolanahi ere, sentiberatze horiek oso urte gutxitan gertaturiko aldaketak dira, nahiz eta ez duten arazoaren muinera jo, izan ere, benetako aldaketek maila guztietako ondorioak dakartzate, eta hor zailtasun handiak sortzen direla ezin ukatuzko kontua da. Hala ere, horren kontziente izateak ardurak maila guztietan har daitezen lan egiten jarraitu behar denaren zalantzarik ez dago. Beraz, zailtasunak zailtasun, ikus-

pegi ekologikoaren aldeko jarrera eta portaerak sustatzeko ekimenek jarraitzen dute. Ekologiaren gaiak, eta horren haritik hizkuntza-ekologiaren inguruan, erreferentziako lanak, ikerketak, proposamenak eta bibliografia-lanak gero eta ugariagoak dira. (Uranga, 2011: 26)

2011. urtean, hizkuntza-ekologiaren eta adostasunaren paradigmak Euskal Herrian pauso garrantzitsuak emanak bazituen ere, Iñaki Martínez de Lunak zioen hizkuntza ekologiaren ideiak zabaltzeko oraindik ere lan gehiago egin behar zela: «(...) gaur egun nagusi den sentsibilitate motatik hizkuntza-aniztasunaren ideiaraino jauzi egin ahal izateko, lan pedagogiko handia behar da (...)» (Martínez de Luna, 2011: 634).

Hipotesi gisa botatzen dugu, baina, iruditzen zaigu, azken 15 urteotan, gatazkan oinarritutako diskurtso eta azterketak guztiz alboratu gabe, adostasunean oinarritzen den paradigmak pisu garrantzitsua hartu duela euskal soziolinguistikan. Asimilazioa, errepresioa, desoreka, bazterkeria, inposizioa eta mendekotasuna bezalako kontzeptuak guztiz desagertu ez badira ere, berdintasuna, aniztasuna, tolerantzia edo errespetua bezalako kontzeptuak dituzten ikerketak ugaritu dira.

Ze paradigma da egokiena Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa ulertzeko eta ikertzeko? Adostasuna eta gatazka txanponaren bi aldeak direla kontuan hartuta, esan beharra dago, agian, bi oinarri teorikoak direla beharrezkoak.

4. Aipatutako bibliografia

AZURMENDI, Maria Jose, 2010a, «BAT Soziolinguistika Aldizkariaren XX. urteurrena ospatzen: hausnarketak», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 76, 2010-3, 19-51.

———, 2010b, «Hizkuntza ekologia eta jasangarritasuna, globalizazioan: euskarari begira», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 75, 145-163.

BASTARDAS-BOADA, Albert, 2016, «Ecología lingüística y lenguas minorizadas: algunas notas sobre el desarrollo del campo», in Fernández Planas, A. Ma. (ed.) (2016): *53 reflexiones sobre aspectos de la fonética y otros temas de lingüística*. Barcelona: 449-458.

COSER, Lewis, 1970, Lewis. *Nuevos aportes a la teoría del conflicto social*. Buenos Aires: Amorrortu

DAHRENDORF, Ralf, 1971, *Elementos para una teoría del conflicto social*. Madrid: Tecnos.

CRYSTAL, David, 2009, «Breves reflexiones en el umbral», in Baztarrika, Patxi. (2009): *Babel o barbarie. Una política lingüística legítima y eficaz para la convivencia*. Alberdania.

ERIZE, Xabier, 2011, «Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 81, 2001-4, 67-86.

ETXEGOIEN, Juan Carlos «Xamar», 2001, *Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologia*. Iruñea: Pamiela.

EUSKALTZAINDIA, 1978, *Euskararen Liburu Zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1977, *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Ediciones Vascas Argitaletxea.

EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA, 1983, *La Lucha del Euskera en la Comunidad Autónoma Vasca*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzua.

IZTUETA, Paulo, 2003, «Identitate kulturala eta boterea», *Uztaro*, 47, 97-110.

———, 1993, «Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia», *Uztaro*, 9, 119-151.

LARRAÑAGA, Iñaki, 1987, «Euskal Soziolinguistikaren egoera eta bide berriak», *Jakin*, 42-43 (ekaina).

MARKO, Iñaki eta URANGA, Belen, 2014, «Sobre la ecología lingüística en el País Vasco: visión de los agentes sociales». *Revista de Lengua i Dret*, 62.

MARTÍ, Felix; ORTEGA, Paul; BARREÑA, Andoni; IDIAZABAL, Itziar; JUARISTI, Patxi; JUNYENT, Carme; URANGA, Belen eta AMORRORTU, Estibaliz, 2005, *Words and Worlds. World Languages Review*. Erresuma Batua: Multilingual Matters.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki, 2010, «Framing: komunikazio-teoretatik euskararen beharrianetara», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 76, 53-67.

———, 2011, «Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena», *Euskera*, 56-3, 589-652.

MÜHLHÄUSLER, Peter, 1996, *Linguistic ecology. Language change and linguistic imperialism in the Pacific region*. Routledge.

ODRIOZOLA, Jose Manuel, 1993, *Soziolinguistikaren atarian*. Bilbo: BBK; Euskaltzaindia.

PARSONS, Talcott, 1984, *El sistema social*. Madril: Alianza.

SÁNCHEZ CARRIÓN, Jose Maria, 1974, *El estado actual del euskera en la provincia de Navarra* (1970). Iruñea: Vianako Printzea Erakundea.

———, 1974, «Bilingüismo, Disglosía, Contacto de Lenguas. Hacia una Delimitación de Conceptos», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, VIII, 3-79.

———, 1987, *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia: Sánchez Carrión (arg.).

SANCHEZ DE PUERTA, Fernando, 2006, «Los tipos ideales en la práctica: significados, construcciones, aplicaciones», *Empiria: Revista de metodología de ciencias sociales*, 11, 11-32.

SARASUA, Jon, 1997, *Biziaren hizkuntzaz. Txepetxekin solasean*.

TXILLARDEGI, 1984, *Elebidun Gizarteen Azterketa Matematikoa*. Iruñea: UEU.

TORREALDAI, Joan Mari, 1998, *El libro negro del Euskera*. Donostia: Tartalo.

URANGA, Belen, 2011, «Hizkuntza-ekologia. Ekologia biologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak», *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 81, 2011 (4), 25-50.

WEBER, Max, 1982, *Ensayos sobre metodología sociológica*. Buenos Aires: Amorrortu Editores.

ZALBIDE, Mikel, 2010, «Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean», *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 77.